

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko HERNANDORENA KULTUR ELKARTEA izeneko elkarte eratu da; Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan oinarri izanik, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea, eta, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoarekin bat etorrira.

Elkarateak honako araubidea izango du: aipatutako elkarteei buruzko legeak; Estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira); gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira); eta, Eusko Jauriaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak besterik ez dira izango).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkarte honen helburuak, nagusiki eta orohar, Euskal Kulturaren oinarritzen direnak izango dira. Xehekiago esanda, euskal historia eta etnografia Zizurkil en eta zizurkildarren artean lantzea, hedatzea eta ezagutaraztea.

Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

Era guztietako ekintzak antolatuko dira: hitzaldiak, denborapasak, argitalpenak, ikastaroak, mahai-inguruak, topaketak, bide beretik ari diren beste elkarte eta erakundeekiko harremanak, eta abar.

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da:

Iriarte etxea - Pedro Mari Otaño plaza
20159 - Zizurkil

Egoitza soziala Zizurkilgo Udalarena den lokal batean izango du eta horretarako baimena Udalak emana du. Horrek, hala ere, ez du egoitza horren gainean inolako eskubiderik lortzeko biderik ematen.

Elkarateak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Elkarte honek nagusiki Zizurkil en gauzatuko ditu bere zereginak.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUA

5. artikulua.- Elkarte erabakiak iraukorra izateko eratu da, eta IV. kapitulu en esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

GIZAKIEN ENPLEU ERABILKETA
DEPARTAMENTUA
EMPLEO (LABOR) SOCIAL
Región de Castilla-La Mancha

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarriko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

GIZAR ESKUBIAK
DEPARTAMENTU
EMPLEGATUEN

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarte desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaioteko horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: 1. hiru hilabetez izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da bilkura berezian, bere ekimenez edota bazkideen % 25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko, bilkura berezia egingo da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarte desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkurak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gaitzerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, arruntak nahiz bereziak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta eratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua behar da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko :

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu behar da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez 1 ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku utzeko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea lehendakariak, idazkariak, diruzainak eta lau batzordekideek osatuko dute.

Gutxienez sei aldiz bildu behar du, bai eta, elkartearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo, tarteka sei aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin behar du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrek hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek lau urterako izendatuko dira, Batzordeak berriaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete behar dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan bildutako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Nagusiak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua libreki onartuko du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrek.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrek kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen baldin badira.

"a)" idatz-zatien agertzen dena baldin bada kargua utzeko arrazoiak, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoiak, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrek erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

GZAR ESEK

DEPART
EMPLEO

20. artikulua.-

Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- b) Elkarreak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, edo, bertan ez balego, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.-

Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, alipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.-

Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilera bukaturat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliozki erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

IDAZKARIA

24. artikulua.-

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartearen sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburuaren zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkartearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuaren eta artxiboaren edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

25. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordaintzen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK

26. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:
- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.
27. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko dio lehendakariari bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

28. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:
- 1) Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
 - 2) Elkarteko gobernu- eta ordezkari-organoen osaera, elkarrearen kontu-egoera eta elkarrearen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
 - 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapeneren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
 - 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
 - 5) Elkarrearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoei parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
 - 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarrearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
 - 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 - 8) Elkarrearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkarrearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
 - 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
 - 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

29. artikulua.-

Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliozki hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

30. artikulua.-

Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea.
2. Bazkidea bere borondatez joatea. Kasu honetan, hasieran edo geroago egindako ondare-ekarpenak (kuotak izan ezik) berreskuratu ahal izango lituzke.
3. Zuzendaritza Batzordeak elkartetik bidaltzeko zigorra ezartzea, arrazoi honengatik: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

31. artikulua.-

Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsosa jarri ahalgo zaio Batzar Orokorrari.

32. artikulua.-

Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentari hasiera ematea erabaki dezake.

33. artikulua.-

Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta Batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du parte hartuko espeditenteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsosa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsosa ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-

eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia hartu dezan.

34. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.
35. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

36. artikulua.- Elkarreak ez dauka sortze-ondararik.
37. artikulua.- Elkarreak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- Sarrera-kuotak.
 - Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - Elkarrearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrezkotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta ekitaldia urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

Elkarreak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatzuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

38. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.
39. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.
- Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.
40. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

GIZAKIEN ENPLEGUAREN ARLOAN
 DEPARTAMENTU BARRUTIA
 ENPLEGUAREN ARLOAN
 ENPLEGUAREN ARLOAN

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOIA

41. artikulua.- Elkartearen arazoak haureratik desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

42. artikulua.- Elkarte deseginez gero, erabakia hartu duen ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko hiru kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da. Kasu horretan, bazkideek egindako ondare-ekarpenak (kuotak izan ezik) berreskuratu ahal izango dituzte.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenei bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behingo izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo batzar orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuak aginduak aldatuko.

[Handwritten signatures and scribbles on the left margin]

<p>Estatutu hauek ikus-oneski dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Erregistroaren onartzen duen araudian 2008ko 145/2008 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko araudien zehaztasunari erantsita.</p>	<p>Visados los presentes Estatutos a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones de Euzkadi, de las normas concordantes.</p>
<p>Donostian, 16 de marzo de 2009.</p>	<p>En Donostia, 16 de marzo de 2009.</p>
<p>ERROLDARADUNA</p>	<p>EL/LA ENCARGADO/A DEL REGISTRO</p>

[Large handwritten signature]

GIZAKIEN ENPLEGUAREN ARLOAN
 DEPARTAMENTU BARRUTIA
 ENPLEGUAREN ARLOAN
 ENPLEGUAREN ARLOAN